



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



2024

Gobernantza eta kultura ondare immateriala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gobernantza eta kultura ondare immateriala

- 1. Aurkezpena
- 2. Esparru kontzeptual eta juridikoa
 - 2.1. Gobernantza: kultura-politiken kontzeptua eta aplikazioa
 - 2.2. Kultura Ondare Immateriala UNESCOn
 - 2.3. Dualtasunak
- 3. Egoera eta aurreikuspenak EAEn
 - 3.1. Aurrekariak
 - 3.2. Aplikazio-esparrua EAEn
 - 3.3. Egungo egoera
- 4. Gobernantza-eredu propiorantz
 - 4.1. Atariko elementuak
 - 4.2. Dimentsioak
 - 4.3. Funtsezko gaiak
 - 4.4. Esparru berrirako alderdi inspiratzaileak
 - 4.5. KOlak beste politika batzuekin duen lotura
- 5. Azken gogoetak
- 6. Erreferentzia bibliografikoak

Laguntza teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Itzulpena:
LETE ITZULPENAK-
TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

1. Aurkezpena

2023an 20 urte bete ziren UNESCOk [Ondare Immateriala Zaintzeko Konbentzioa](#) Parisen onartu zuenetik. Bi hamarkada horietan, 180 herrialderen atxikimendua lortzeaz gain, Konbentzioak munduan kultura-dibertsitatea sustatzeko duen gaitasuna egiaztatu da.

Ondare guztien artean, puri-purian dago une honetan immateriala. UNESCOk munduko ondare gisa deklaraturako ondasun edo elementu gehienak tipologia horretakoak izatea da adierazitakoaren froga garbia. Gainera, ondasun immaterialen multzo horrek zerrenda zabal eta aldi berean askotarikoa osatzen du. Bere balizko zabaltasun horretan datza bere handitasuna eta bere zailtasuna, ezen kolektibitate baten ia edozein kultura-adierazpen adierazgarri jo baitaiteke Kultura Ondare Immaterialtzat (KOI aurrerantzean, aukeran). Komunitate horrentzat esanahia eta zentzua izatea da horretarako baldintza.

Eraikuntza zibil eta erlijioso handien botereari eta ikusgarritasunari lotutako higiezin-ondarearen aurrean, beste bide bati ekin zion Konbentzioak, eta egunerokoaren adierazpenak, emakumearen rola, landa-arloko alderdiaren rola, artisau-lanbideen rola, eta abar, aitortzea, zaintzea eta balioan jartzea da bide horren helburua. Ildo horretan, agerikotasunik ez duten adierazpen eta kolektiboehi ahotsa ematen diela esan ahalko litzateke. Aurrerapausoa da, gainera, begirada antropologiko batetik begiratuta, eta kudeatzeko modu berriak dakartza horrek halaber.

Komunitate eramaile horiek KOIaren zaintzan duten rol nagusiak behartzen du, hain zuzen ere, fokua ondare horren gobernantza-ereduetan jartzera. Komunitateak pisu nagusia izan behar du ondarearen kudeaketan KOIaren zentzuaren bermatzaile gisa.

Horrexegatik da gobernantza, harreman-esparru irekia den aldetik, aurkezten den azterlanaren hari eroalea.

Hiru atal handitan egituratzen da txostena eta azken gogoetekin amaitzen da.

Lehen blokeak esparru kontzeptual eta juridikoa aztertzen du, gobernantza-kontzeptuarena eta kultura-politikan duen aplikazioarena, zein KOIarena berarena. Erreferentziazko erakundeen hurbilketak eta azken urteetan izan duten bilakaera biltzen dira.

KOIak EAEn duen egoeran eta etorkizunean sakontzen du bigarren blokeak. Kontzeptua berez erlatiboki berria bada ere, ikerketa etnografikoak tradizio handia du Euskal Herrian, eta azken mendean egindako ikerketa ezinbesteko ezagutza-iturria da esparru horretan. Egungo eskumen- eta lege-

esparrua ere aurkezten da, eta, azkenik, egungo egoeraren azterketa bat egiten da gure inguruneko KOIaren inguruko ikerketaren, identifikazioaren, zaintzaren eta ezagutza balioan jartzearen inguruan. Azterketa honek ez duela diagnostiko sakon bat izan nahi argitu behar da, eta are gutxiago alor horretako kudeaketa-plan bat. KOIak EAEn bizi duen egoerara ikuspegi orokor batetik eta herrialde-ikuspegi batetik egindako lehen hurbilketa bat da.

Hirugarren blokeak, aldiz, KOIaren gobernantza-eredu batek EAEn ardatz izan ahalko lituzkeen oinarriak planteatzen ditu. Kontuan hartu beharreko dimentsioak eta funtsezko gaiak planteatzen dira, baita eredu hori garatzeko beharrezkoak diren urratsak ere, kontzeptutik beretik eta Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeak ezartzen dituen betebeharratik eratorritakoak. Kultura-politiken esparru orokorarekin nola uztartzen den eta beste

hainbat arloekin –hala nola turismoarekin eta ingurumenarekin– duen lotura aipatzen dira atal hori ixteko.

Azkenik, azken gogoeta batzuk aipatzen dira laburki KOIak Euskadin etorkizunean izan dezakeen garapenerako.

2. Esparru kontzeptual eta juridikoa

2.1. Gobernantza: kultura-politiken kontzeptua eta aplikazioa

Gobernantza funtsezko kontzeptu bat da politika publikoak gaur egun ikusteko moduan, maila guztietan onartutako axioma bat, gobernua egikaritzeko moduak eta politika-ereduak klabe demokratikoan arautzen dituen. Gobernantza, parte-hartzea eta demokrazia kontzeptu banaezinak dira gaur egun, Europako esparruan behintzat.

Gobernantzak **prozesu** bat ezartzen du, zeinaren bidez politika publikoen garapenean inplikaturako erakunde, egitura eta agenteen artean elkarri eragitea, eta truke- eta lankidetzaren harremanak ezartzea ahalbidetzen duten harremanak ezartzen diren. Ez da ekintza bat, baizik eta atributu bat. Gobernu-ekintzaren kalitaterekin du zerikusia. Horrela bereizten eta ezaugarritzen ditu egungo politika publikoak.

Definizioa

Kontzeptu multilateralra, kolektiboa eta askotarikoa da gobernantza, eta interakzioak eragiten ditu gobernu-maila desberdinen eta hainbat agenteren artean. Ildo horretan, ikuspegia eta gobernu-ekintza zentzu bertikalean (maila anitzekoa) eta horizontalean (agente anitzekoa) irekitzen ditu. Klabe loteslean egindako ekintza kolektiboaren esparrua da, akordioan, lankidetzan eta kolaborazioan oinarritutakoa. Legitimitatea, parte-hartzea eta gardentasuna dira ekintza politiko garaikidea ulertzeko modu hori oinarritzen duten terminoak.

Aztertzen ditugun oinarri kontzeptualak maila globaleko, Europa osoko eta tokian tokiko erakunde nagusien definizioetan oinarrituta. Kontzeptua bere konplexutasun guztian kokatzen laguntzen duten hiru planteamendu dira. Boterea ikusteko eta egikaritzeko modu gisa partekatzen dute hiruek gobernantzaren ideia.

Lehenik, Nazio Batuen Erakundeak Garapenerako bere Programan planteatzen duen **Reconceptualising governance** (1997) dokumentuan islatutako definizioa.

Nazio baten gaiak kudeatzeko aginte politikoaren, ekonomikoaren eta administratiboaren egikaritzapen gisa definitzen da gobernantza. Herritarrek eta taldeek beren interesak artikulatzeko, eskubide eta betebeharrak egikaritzeko, eta beren aldeak bideratzeko baliatzen dituzten mekanismo, prozesu, erlazio eta erakunde konplexuak dira. Boterea banantzeko, eta baliabide publikoak eta arazoak kudeatzeko gizarteek erabiltzen dituzten metodo guztiak (onak eta txarrak) barnean hartzen ditu gobernantzak. Horrenbestez, gobernantzaren azpimultzo bat da gobernantza egokia, non baliabide eta arazo publikoak modu eraginkor eta

efizientean, eta gizartearen premia kritikoei erantzunez kudeatzen diren. Parte-hartze publikoan, eta kontuak ematean eta gardentasunean oinarritzen dira gobernantza demokratikoaren modu eraginkorrak.

Bigarrenik, [Europako gobernantzaren liburu zurian](#) (2001) islatutako planteamendu europarra aurkezten da. Une horretan, Batzordeak bere lau helburu estrategikoetako bat bezala identifikatu zuen Europako gobernantzaren erreforma, besteak beste, herritarrek erakundeen lana dela-eta erakusten duten desilusioarengatik eta urruntasunarengatik. Honako termino hauetan planteatzen da definizioa:

Gobernantzaren kontzeptuak Europa osoko botereen egikaritzapenean eragiten duten arau, prozesu eta portaerak ezartzen ditu, batez ere irekieraren, parte-hartzearen, erantzukizunaren, eraginkortasunaren eta koherentziaren ikuspuntutik.

Liburu zuriaren ekarpenetako bat gobernantza hobetzeko proposatutako ekintzak arautzen dituen bost printzipioak dira.

Irekiera. Erakundeek modu irekiagoan lan egin beharko lukete, EBren lanari eta EBk berak hartzen dituen erabakiei buruzko komunikazio aktiboago bat garatu, eta jendearentzat oro har irisgarria den hizkuntza bat erabili, berez ere konplexuak diren erakunde batzuen konfiantza sustatzeko garrantzi berezia duen alderdia.

Parte-hartzea. Batasunaren politiken kalitateak, egokitasunak eta eraginkortasunak ekartzen du herritarrek parte-hartze handia izatea prozesuaren fase guztietan, sorreratik hasita politikak aplikatzen diren arte.

Erantzukizuna. Bakoitzak lege-prozesuan eta prozesu betearazlean duen zeregina argitu behar da. Erakunde bakoitzak Europan duen ekintza azaldu behar du eta dagokion erantzukizuna bere gain hartu. Baina estatu kideen eta maila guztietako EBren politiken garapenean eta aplikazioan

parte hartzen duten agente guztien argitasun eta erantzukizun handiagoa ere behar da.

Eraginkortasuna. Neurriek eraginkorrak eta egokiak izan behar dute nahitaez, eta lortu nahi diren ondorioak sortu betiere helburu argi batzuk, etorkizunean izango duten eraginaren ebaluazioa, eta, hala badagokio, metatutako esperientzia oinarri hartuta. Eraginkortasunak EBren politiken aplikazioa proportziozkoa izan dadila ere eskatzen du, eta erabakiak maila egokienean hartu daitezela.

Koherentzia. Garatutako politikek eta hasitako ekintzek koherenteak eta erraz ulertzeko modukoak izan behar dute. Koherentziak eskatzen du instituzioek lidergo politikoa eta konpromiso sendoa izatea sistema konplexu baten barruan ikuspegi koherentea bermatzeko.

Hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzak XII. Legegintzaldirako bere [Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Ardatz 2030 Plan Estrategikoak](#) honela ikusten du gobernantza:

Gobernantza publiko egokiaz hitz egiten da erabakiak hartzeko prozesuak eta prozesu horien ezarpena modu demokratikoan egiten direnean eraginpeko agenteen artean, eraginkorrak direnean eta baliabide orekatuak kontsumitzen dituztenean lortu nahi duten helburuaren arabera. Administrazio publikoaz gain, herritarrak ere gobernantza publikoko agenteak dira zentzurik zabalenean: herritar antolatuak eta ez-antolatuak, agente ekonomiko eta sozialak, eta abar. Gobernantza publiko egokia funtsezko garapen-faktorea da, eta komunitate politiko aurreratu eta oparoak bereizteko irizpide fidagarri bat.

Balio publikoa sortzen duen hura hartzen da *gobernu egokitza*: erantzunak ematen dizkie gizartearen arazo esanguratsuei, aukerak sortzen ditu egungo eta etorkizuneko bezeroentzat, eta deliberazio

demokratikoa sustatzen du herritarrak, komunitatea eta demokrazia sortzeko. Honako hauek dira gobernu egokiaren printzipioak: gardentasuna (emaitzak ematea), kolaborazioa (herritarren inplikazioa administrazioaren lanean) eta parte-hartze aktiboa.

Gobernantza eta politika kulturalak

Kontzeptua politika kulturaletara eramaten bada, honako definizio hau proposatzen du UNESCOk bere txostenean [Sormenerako politikak birpentsatzea](#) (2022):

Arau-esparruak, politika publikoak, azpiegiturak, gaitasun instituzionalak, eta kultura- eta sormen-sektoreak itxuratzen dituzten prozesuak barnean hartzen ditu kulturaren gobernantzak. Maila eta instantzia guztien parte-hartzea bultzatzea du helburutzat gobernantza horrek, ahots-dibertsitatea sustatzeko. Horrenbestez, inklusiboa eta jasangarria izatea bilatzen du.

Inklusioari eta jasangarritasunari egiten zaion erreferentzia nabarmendu behar da, gobernantzaren ideian inplizitu dauden elementu guztiez gain.

Azken batean, ardatz axiomatiko bat da gobernantza egungo politika kulturaletan, eta, izan ere, lehenengo helburu bezala agertzen da kultura-adierazpideen dibertsitatearen babesari eta sustapenari buruzko Konbentzioaren jarraipenari buruzko txostenean (2005).

Europako esparruan, eta kultura-ondarera mugatuta, [Kultura-ondarearen parte-hartzean oinarritutako gobernantzari](#) espresuki eskainitako txosten bat argitaratu zuen Batzordeak. [Europar Batasuneko Kontseiluak](#) eskatu zuen sektore publikoa, eragile pribatuak eta gizarte zibila inplikaturako zituen ondare material, immaterial eta digitalaren gobernantzarako ikuspegi berritzaileak identifikatzeko, 2015-2018 aldiko Kulturarako Lan Planaren Esparruan.

Eskariak aitortzen du kultura-ondarea baliabide partekatua eta ondasun erkidea dela, eta, horrenbestez, ondare hori zaintzea ere erantzukizun erkidea dela. Gobernantzak berezko dituen abantailen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Parte-hartze demokratikoa jasangarritasuna eta gizarte-kohesioa sustatzeko aukeratzat hartzen du, baita egungo erronka sozial, politiko eta demografikoei aurre egiteko ere.
- Jardun publikoaren esparruan dagozkion alderdi interesdunek erabakiak hartzeko prozesuan, plangintzan, praktikan jartzean, eta kultura-ondarearen arloko politiken eta programen ikuskapenean eta ebaluazioan parte hartze aktiboa izan dezatela bultzatzen du, baliabide publikoen inbertsioen erantzukizuna eta gardentasuna handitzeko eta erabaki politikoetan konfiantza publikoa sortzeko.
- Kultura-ondareak partekatutako baliabide gisa dituen balioei buruzko sentsibilizazioa handitzen laguntzen du, okerreko erabilerako arriskua gutxituz,

eta bere onura ekonomiko eta sozialak handitzen ere lagunduz.

- Nortasunari eta balioei estu lotuta dauden obra kultural, artistiko eta kreatiboak, eta sarritan ezagutza tradizionaletan oinarritutakoak, babesten ditu, baita herrien ondare ukiezina ere, eta, horrenbestez, etorkizuneko belaunaldien kultura-ondarea irudikatu dezaketenak.

Kultura-ondarearen gobernantzaren tokiko, eskualdeko, Estatuko eta Europako mailen arteko loturak indartuz kultura-ondarea partekatutako baliabide gisa aitortzen duten alderdi askotariko eta maila anizkuneko gobernantza-esparruak lantzeko gonbidapen espresua dakar eskaera horrek; eta horrekin batera, dagozkion alderdi interesdunen inplikazioa sustatzeko gonbidapena haien parte-hartzea bermatuz erabakiak hartzeko prozesuaren etapa guztietan; kultura-ondare ukigarriaren, ukiezinaren eta digitalaren arteko interakzioaren garrantzia aitortzen duten, eta ondarearen balio sozialak, kulturalak, sinbolikoak, ekonomikoak eta

ingurumen-arlokoak aztertzen, errespetatzen eta hobetzen dituzten gobernantza-esparruak sustatzeko gonbidapena; zeharkako politiken aplikazioa erraztuko duten gobernantza-esparruak irekitzeko gonbidapena, kultura-ondareak hainbat jarduketa-esparrutan helburuak lortzen lagundu dezala ahalbidetuz, bereziki hazkunde inteligente, jasangarri eta integratzaile bat lortzen lagundu dezan; eta sinergiak sortzeko gonbidapena turismo jasangarriko eta tokiko kultura-eta sormen-sektoreen arteko estrategien artean, kalitatezko eta jasangarria izango den turismo-eskaintza kulturala bultzatzeko, eta hirigune eta landa guneak biziberritzen laguntzeko, aldi berean osotasuna zainduz eta ondarearen kultura-balioa atxikiz, eta aukera ekonomikoak eta herritarren ongizatea orekatuz.

Kultura-ondarean parte-hartzean oinarritutako gobernantzari buruzko txosten horretan Europako eskalan aztertzen dira jardunbide egokiak, eta politika egituratuak garatzeko gomendioak formulatzen dira.


2.2. Kultura Ondare Immateriala UNESCOn

Atal honek modu sintetikoan aurkezten du zer den kultura-ondare immateriala UNESCOren arabera, ondare horren bilakaera eta definizioa ikuspegi kontzeptual eta etikotik aztertuz, baita ondarea bera kudeatzeko erreminten ikuspegitik ere. Ondarearen identifikazioak eta kudeaketak eragiten duten gogoeta batekin amaitzen da.

Kontzeptuaren bilakaera eta definizioa

Kultura-ondarearen kontzeptuaren –eta zehazki KOIaren kontzeptuaren– bilakaera UNESCOren konbentzioen eta ebazpenen bidez ikusi daiteke, politika kulturala bere osotasunean eraginpean hartzen dituzten konbentzio eta ebazpen orokor zein espezifiko bidez, hain zuzen ere.

Politika kulturelei buruzko esparru orokorra




Politika kulturelei buruzko erreferentzia orokorrak

80ko hamarkadatik aurrera hasi ziren zenbait kontzeptu berri sartzen, hala nola identitatea, dibertsitatea edo kultura herriko eta tradizionala. Hamarkada horietako mugarren artean daude **MONDIACULT Konferentzia**, 1982an Mexikon egindakoa, eta 90eko hamarkadan sartuta jada, Gure Dibertsitate Sortzailea txostena.

Honako honetan datza Politika Kulturelei buruzko Munduko Konferentziaren

Kultura-ondareari buruzko esparru espezifikoa



garrantzia: hierarkiarik gabeko kulturaren kontzeptu bat proposatzen da, tradizioen, historiaren eta aurreko belaunaldietatik jasotako balio moral, espiritual eta etikoen defentsa bezala ulertutako kultura-identitatearen printzipioan oinarritutakoa, non demokraziak eta parte-hartzeak rol nagusi bat duten. Begirada horretatik ikusita, ulertzen da kultura-arloko identitatea eta dibertsitatea banaezinak direla, eta kultura-aniztasunaren oinarria kultura-identitate askotarikoen aitortzan dagoela. Horrela, kulturaren definizio berri irekiago bat proposatzen du, balioak eta funtsezko

eskubideak barnean hartzen dituena balio horiek transmititzeko baliatzen diren bizimoduak eta adierazteko erak atxikitzearen garrantzia azpimarratuta. Konferentzia horretan positibotzat nabarmentzen da aurreko hamarkadako “ondare immateriala” zaintzeko eragindako arreta eta esamolde hori erabiltzen den lehenengo aldietako bat izan da. Kulturaren nozioa birdefinitzeaz gain, konferentziak UNESCOri eskatu zion ez zedila monumentuek eta leku historikoez osatutako kultura-ondarea zaintzeko bere programara mugatu, eta, aitzitik, bere programak eta jarduerak ere garatu zitzala kultura-ondare immateriala zaintzeko eta aztertzeko, batez ere ahozko tradizioak. Horrenbestez, lehen mugarrria dugu alderdi immateriala kultura-ondarearen funtsezko zati gisa hartzeko.

Ondare immaterialaren babesaren aurreratua zegoen jada [Kultura Herrikoi eta Tradizionala Zaintzeari buruzko Gomendioaren](#) onarpenarekin (1989), baina 90eko hamarkadan bultzatu zen

ondarearen definizioa. Alde batetik, izaera independenteko Kulturari eta Garapenari buruzko Munduko Batzorde bat sortu zen, [Gure Dibertsitate Sortzailea](#) txostena (1996) idazteko aginduarekin. Bertan azpimarratzen da kultura-ondarea zaintzeko politikak objektu fisikoei zuzenduta zeudela (monumentuak eta artelanak, eta artisautza), baina kultura-ondare immaterialak, izugarri hauskorra izatez, ez zuela, ordea, babes bera jasotzen. Hurrengo urteetan gizateriaren ondare ahozko eta immaterialaren maisu-lanak aitortzeko programak jarri ziren martxan, eta kultura tradizionala eta folklorea babesteko arau-tresnak diseinatzeke posibilitatea ere aztertzen da aldi berean. Une horretan jarri zen kultura-ondare immateriala terminoa folklore terminoaren ordean eta identifikatu zen zein esparrutan ageri den.

2001ean onartu zen [Kultura Dibertsitateari buruzko Adierazpen Unibertsala](#), zeina oinarri gisa izan zen baliagarria kultura-ondare immaterialari buruzko arau-tresna bat lantzeko.

Kultura-ondareari buruzko erreferentzia espezifikoak

60ko eta 70eko hamarkadetan ondare material higiezinak, eta monumentu eta leku historikoak ziren babesaren ardatza. [Munduko, Kultura-arloko eta Natura-arloko Ondarea Babesteari buruzko Konbentzioa](#) (1972) da erreferentzia nagusia. Elementu bat kultura- eta natura-ondaretzat hartzeko funtsezko kontzeptua “ohiz kanpoko balio unibertsala” da, eta horretan oinarrituta artikulatzen da definizioen, erakundeen eta babes-tresnen multzoa. Gaur ere kultura-ondare babesteko tresna juridiko unibertsalena izaten jarraitzen du.

70eko hamarkadan, hainbat ahots entzuten hasi ziren Afrikan eta Latinoamerikan antolatutako mintegietan alderdi materialari eta monumentalari lotutako ondarearen ikuspegi hori ikuspegi zabalago batera irekitzea eskatuz, sistema kosmologikoak, balioetakoak eta sinesmenetakoak kontuan hartuko zituen batera irekitzea, hain zuzen

ere. Aldi berean, kultura-ondareak ondare hori gordetzen duten komunitateen bizikalitatearekiko duen garrantzia planteatzen hasi ziren.

Kultura-ondarea ikusteko moduan aurrerapauso bat den beste dokumentuetako bat ICOMOS Monumentu eta Lekuen Nazioarteko Kontseiluaren **Burrako Gutuna** da (1999), esanahi kulturala duten edozein motatako lekuei aplikatzekoa zaien gida, kultura-balioak dauzkaten leku naturalak, indigenak eta historikoak barne. Aurrerapauso bat da kultura-esanahi horrek balio estetikoak, historikoak, zientifikoak, soziala edo espiritualak dakarrelako aurreko, oraingo eta geroko belaunaldietarako. Kultura-esanahia duten lekuek herriaren bizitza aberasten dute, eta komunikazio-zentzu sakon eta inspiratzailea lotzen duen komunitatearen eta paisaiaren artean, iraganarekin eta bizi izandako esperientziekin. Erreferente historikoak dira, garrantzitsuak identitatearen eta

esperientziaren adierazpen nabari gisa. Komunitateen dibertsitatea islatzen dute, eta nor garen eta zer iraganek sortu gaituen esaten digute. Balioen maila desberdina izan dezake hainbat gizabanako eta talderentzat, baita denboran esanahia aldatu ere.


Mende berriaren hasierarekin iritsi zen definizio zabal bat giza eskubideen nazioarteko tresnen erreferentzia zehatz neutro eta dinamiko batekin: **Kultura Ondare Immateriala Zaintzeko Konbentzioa** (2003). 1972koa ez bezala, konbentzio horren nazioarteko aitortza ondare bizi horrek ondare hori sortzen, transmititzen eta birsortzen den komunitateen identitate- eta jarraitutasun-sentimendurako duen garrantzian oinarritzen da. Bertan, honela definitzen da **ondare immateriala**:

Komunitateek, taldeek eta, zenbait kasutan, norbanakoez beren kultura-ondaretzat hartzen dituzten usadioak,

irudikapenak, adierazpenak, ezagutzak eta teknikak, haiekin berez lotutako tresnekin, objektuekin, gailuekin eta kulturaguneekin batera. Kultura-ondare immaterial hori belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, eta komunitateek eta taldeek etengabe birsortzen dute, ingurunearen, naturarekiko duten elkarreraginaren eta historiaren arabera, identitate- eta jarraitutasun-sentimendua emanez eta, hartara, kultura-aniztasuna eta giza sormena errespetatzen lagunduz.

Konbentzio honi dagokionez, egungo giza eskubideen nazioarteko eskubideen tresnekin, eta komunitateen, taldeen eta gizabanakoen elkarren arteko errespetuko eta garapen jasangarriko betebeharrekin bateragarria den kultura-ondare immateriala hartuko da soilik kontuan.

Kultura-ondare immateriala agertzen den honako esparru hauek barnean hartzen ditu Konbentzioak:



Printzipioak eta balioak: alderdi immaterialaren alderdi immateriala

Ikuspuntu etimologikotik begiratuta, zenbatespen ekonomikoa izan dezaketen ondasun eta eskubideen multzoarekin lotzen da ondarea, eta jasotako herentzia hori nahitaez zaindu beharra dakar berekin. Frantziako Iraultzaren ondoren beren jatorrizko erabilgarritasuna ez duten ondasunei aplikatzen hasi zen, baita aitortutako baliorik ez zutenei ere, baina betiere komunitate politikoei lotutakoak. II. Mundu Gerraren ondoren zabaldu zen giza arloko esparru guztietara eta hartu zuen balio unibertsala. Horrela, immaterialak badira ere, esanahiarengatik eta komunitate jakin baterako duen zentzuarengatik aitortutako balio bat duten ondasunek

osetzen dute ondarea. Gizarte edo talde batek propietzat jotzen dituen balio etikoak dauzka ondareak, balio horiek ezaugarrituz, identifikatuz eta transmititu behar dituelarik.

Ildo horretan, 2003ko Konbentzioa osatzen duten **printzipio etikoen** multzo bat proposatzen du UNESCOk, tresnak eta kode etiko espezifikoak egiteko oinarri bezala baliagarriak direnak. Kultura Ondare Immaterialaren bideragarritasuna ziurtatzeko planteatzen dira, eta bakea eta garapen jasangarria bermatzeko duten gaitasuna aitortzen dute. Begirada holistikoa batetik pentsatuta daude, eta, ikusiko denez, gobernantzaren kontzeptuarekin berezko erlazioa duten hamabi kontzeptu hartzen dituzten barnean. Honako ideia hauetan laburbildu daitezke printzipio horiek:

Komunitate eramaileen erabateko protagonismoa: beren Kultura Ondare Immateriala zaintzeko funtsezko funtzioa dute eta praktikak baliatzeko duten eskubidea bermatu behar da bideragarri izateko eta beste edozein zirkunstantzian Kultura Ondare Immaterialaren elementu materialak baliatzeko. Komunitateak ebaluatu behar du bere balioa, eta komunitateak berak atera behar du onura Kultura Ondare Materialaren interes moralen babesetik eta ondare horren erabileratik. Era berean, komunitateek rol aktiboa dute mehatxuen identifikazioa eta arrisku horiek prebenitzeko erabakietan.

Elkarrekiko errespetua komunitateen, gizabanakoen eta Estatuaren artean, kolaborazioan izan beharreko gardentasunak gidatua eta adostasun librearen mendekoa.

Kultura Ondare Immaterialaren izaera bizia eta dinamikoa. Inpaktua ebaluatu behar da bere bideragarritasuna eraginpean hartu dezakeen ekintza guztietan.

Komunitateen kultura-dibertsitatearekiko eta identitateekiko errespetua, arreta berezia jarriz genero-berdintasunean, gazteen parte-hartzean eta identitate etnikoen errespetuan.

Ikuspegi holistikoa eta humanista: Kultura Ondare Immateriala zaintzea interes orokorreko gaia da gizateriarentzat.

Gobernantza Konbentzioan

KOIaren gobernantza nabarmentzen bada, ikusiko dugu komunitate eramaileak direla kontzeptuaren bihotza. Komunitate horietan kokatzen dira KOla eta haren babes, *bottom-up* logikari jarraiki, nahiz eta ezin den soilik haien mende egon. Hala, 15. artikuluan, komunitateen, taldeen eta banakoen parte-hartzeari buruzkoan, honako hau adierazten da:

Estatu kide bakoitza saiatuko da komunitateen, taldeen eta, hala badagokio, ondare hori sortzen, mantentzen eta transmititzen duten banakoen ahalik eta parte-hartze zabalena lortzen, eta ondare horren kudeaketarekin aktiboki lotzen.

Estatu kideen eginkizunei dagokienez, 11. artikulua xedaturikoaren arabera, Estatu kide bakoitzari dagokio:

Bere lurraldean dauden kultura-ondare immaterialaren elementuak identifikatzea eta definitzea, kasuan kasuko komunitateen, taldeen eta gobernu kanpoko erakundeen parte-hartzearekin.

Konbentzioa aplikatzeko Jarraibide Operatiboen III. kapituluaren zehazten da parte-hartzea nola gauzatu behar den. Izan ere, hor adierazten da Konbentzioaren zerrendetan inskribatzea edo praktika

eredugarrien erregistroan sartzea ezinezkoa dela kasuan kasuko komunitatearen edo taldearen aurretiazko baimen aske eta informaturik gabe. Gainera, komunitate edo talde horiek nahitaez parte hartu behar dute nazioarteko laguntza jasotzen duten babes-programak prestatzen eta aplikatzen, eta prest egon behar dute praktika eredugarriak hedatzen laguntzeko, Batzordeak beren programa, proiektua edo jarduera hautatzen badu Konbentzioaren printzipioak eta helburuak modurik egokienean islatzen dituela ulertzen duelako.

Jarraibide Operatibo horiek estatu kideak animatzen dituzte kontsulta-organo edo koordinazio-mekanismo bat sor dezaten euren parte-hartzea bideratzeko, bai eta adituena, eskumen-zentroena eta ikerketa-institutuena ere, kultura-ondare immateriala identifikatu eta definitzeko, inbentarioak egiteko, programak, proiektuak eta jarduerak egiteko, hautagaitzak aurkezteko espedienteak prestatzeko eta elementu bat zerrenda batetik kentzeko edo beste batera eramateko.

KOIa kudeatzeko mekanismoak

UNESCOren kasuan, defendatzen duen ondarea bezalaxe, Konbentzioa bera ere bizirik dago, eta praktika berrietara eta lan egiteko modu berrietara zabaltzen du bere ekintza-eremua. Hiru dira **[babesa bermatzeko mekanismoak](#)**:

- **Premiazko babes-neurriak** behar dituen kultura-ondare immaterialaren zerrenda (Konbentzioaren 17. artikulua): zerrenda horretan 82 kasu daude sartuta munduan, horietako bakar bat ere ez Espainian.
- **Gizateriaren kultura-ondare immaterialaren** zerrenda erakusgarria (Konbentzioaren 16. artikulua): bertan 611 kasu daude jasota munduan. Espainiak **21 elementu** ditu inskribatuak, 5 eskualdetakoak, eta 35 herrialdetakoak.
- **Babes-jardunbide egokien** erregistroa (Konbentzioaren 18. artikulua): 37 kasu ditu munduan. Espainiak **4 elementu** ditu inskribatuak:

- Portugal-Galizia mugaz gaindiko KOI: ondarea belaunaldi gazteenei transmititzeko eta zabaltzeko proiektua.
- Montseny: biosfera-erreserbetan inbentarioak egiteko metodologia.
- Karearen inguruko jakintza tradizionala biziberritzea Morón de la Fronteran.
- Pusol: Eskola-museoaren proiektu pedagogikoa (kultura tradizionaleko zentroa).

2022ko uztailean, Estatu Kideen Batzar Nagusiak bere Erregelamenduan aldaketak egin zituen, estatu kideen artean hiru urteko hausnarketa egin ondoren. Berritasuna da orain elementuak transferi daitezkeela Konbentzioaren nazioarteko lankidetzarako hiru mekanismoen artean.

Zerrendetan **[izena emateko prozedurari](#)** dagokionez, funtsezkoak dira 3 mekanismoetako bakoitzean sartzeko irizpideak. UNESCOk zehaztuta ditu

prozesuaren fase bakoitzean ezarritako epeak eta egutegia, bai eta prozedura horri lotutako azalpen-dokumentuak eta formularioak ere. Bi urte ingurukoa izan daiteke (hogei hilabete) zerrenda erakusgarrian eta jardunbide egokien erregistroan sartzeko epea. Hori guztia adierazia dago KOIari buruzko kontuak jasotzen dituzten **[Jarraibide Operatiboetan](#)**.

Kontuan izan behar da UNESCOk harremana duela estatu kideekin, eta horrek ondorioak dituela gobernantza-eredu banatuan. Estatu kideek proposatu behar dute zer ondasun eta zer jardunbide egoki inskribatu nahi dituzten, eta kasuan kasuko espedienteak aurkeztu behar dituzte. Kontuan izan behar da Konbentzioaren 11. artikuluan deskribatzen direla estatu kideen eginkizunak, eta haiei dagokiela:

- a) beren lurraldean dagoen kultura-ondare immateriala babesteko beharrezko neurriak hartzea;

b) 2. artikuluan 3. paragrafoan aipatutako babes-neurrien artean, beren lurraldean dauden kultura-ondare immaterialaren elementuak identifikatzea eta definitzea, kasuan kasuko komunitateen, taldeen eta gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartzearekin.

2.3. Dualtasunak

Jarraian, kontzeptu desberdinak eta kontrakoak biltzen dituzten bost gai planteatuko dira, baina ez dago horien artean aukeratu beharrik, baizik eta kultura-ondare immaterialaren dualtasun inplizitua eta eratzaila islatzen dute.

Atzera begirakoa eta aurrera begirakoa uztartzea

Denboraren ikuspegitik begiratuta, KOla etengabe aldatzen ari da. Horrek esan nahi du elkarrekin bizi direla atzera begirako eta aurrera begirako ikuspegiak. Alde batetik, iraganari begiratzen dio, esanahi kolektibo

partekatuei lotutako adierazpen kulturalak direlako, belaunaldiz belaunaldi igarotzen direnak eta komunitate batean errotuak daudenak. Memoriaren bidez gauzatzen da hori eta desagertutako adierazpenak berreskuratzea du xede. Bestalde, KOlaren babesak badakar etorkizunari begirako ikuspegia ere, adierazpen horiek hurrengo belaunaldiei transmititu eta utzi nahi baitizkie. Sortu ziren komunitatearen memoriaren parte izateaz gain, bizirik mantentzeko jarrera kolektiboaren emaitza dira, ondare propioaren zati gisa hartzen baitira. Azken batean, iraganari begiratzen dio, eta orainean transmititzen eta birsortzen da, hain zuzen ere, jarraipena izan dezan etorkizunean.

Ondare bizia eta arriskuan dagoena

Honela definitzen da KOla: esanahi kolektibo partekatuei lotutako eta sustraiak komunitate batean dituen kultura-adierazpen bizi oro. Beste ondareen aurrean, iraganeko adierazpen estatikoak izaki haiek, bizirik dago kultura-ondare immateriala. Komunitateari datxekio, etengabe egokitzen eta birsortzen da, eta,

duen izaera bizi horren bidez, ingurunearekin eta historiarekin elkarreragiten du, eta identitate- eta jarraitutasun-sentimendua ematen dio komunitateari. Izaera dinamikoa eta prozesuala du, bizipen partekatukoa. Horrek ez du esan nahi ondare hori galtzeko, desitxuratzeko eta komunitatearentzat zentzua galtzeko arriskurik ez dagoenik, hain zuzen ere ezegonkorra eta lausoa delako. Eraldaketa sozialek eta ekonomikoek arriskuak dakarzkiete erabilerei eta bizimoduei, artisau-lanbideei edo erlijio-irudikapenei, hiru adibide aipatzearren. Hortik dator, hain zuzen ere, zaindu behar hori.

Egunerokoa eta monumentalak

KOla lotua dago eguneroko bizitzarekin, usadioekin eta bizipenekin, tradizioekin, ahozkotasunarekin, jaiarekin, erritualekin, elikadurarekin, artisau-teknikekin, naturarekiko bizipenekin, soinu-adierazpenekin, musikarekin eta dantzarekin. Botere patriarkalaren isla, adierazpen eta sinbolo dira ondasun higiezinari, eraikiari eta produktiboari lotutako ondareak; herri-kulturaren, etxekoaren, ahotsik gabeko

kolektiboen eta emakumeak bezala ikusezin bihurtuen ondarea da, berriz, KOIa, horiek izanik ondare horren transmisioaren bermatzaile. Esan daiteke arrasto feminista duela argi eta garbi. Agerikoa da, begien bistakoa, ondare higiezinaren eta higigarriaren garrantzia, duen monumentaltasunagatik; KOIaren kasuan, ordea, komunitateak haren garrantziaz jabetu behar du, eta horregatik da hain beharrezkoa ondare hori ezagutaraztea eta balioa ematea.

Immateriala eta materiala

Adierazpen immaterialen multzoa da KOIa, elementu materialez lagundua, egunerokoaren adierazpenak dira, euskarri materialei lotuak. Immaterialaren esanahiak gauzatzen diren euskarri fisikoen parte dira jantziak, apaingarriak, erremintak eta objektuak. Une eta leku jakin batean bizitzen da KOIa. Denbora-, espazio- eta material-dimentsio horietan gertatzen diren aldaketek kultura-ondare immaterialaren zentzua desitxuratzeko arriskua dakarte, benetakotasuna galduta.

Galderak eta erantzunak

KOIaren kudeaketak eta babesak, ondare hori aintzat hartzen ari bada ere azken urteotan, erantzun baino galdera gehiago planteatzen dituzte oraindik ere. Esparru irekia, zabala, luzea, bizia, dinamikoa eta mutantea da, askotariko eragileak inplikatzen dituena eta komunitate eramaileetan du zentzua. Ezaugarri horiek zaildu egiten dute ondare horren identifikazioa eta kudeaketa. Aberatsa da, baina baita zaugarria ere. Horri gehitu behar zaio kontzeptu berri samarra dela kudeaketaren ikuspegitik, eta, beraz, arauak eta orientabideak egon arren, ondare hori babesteko tresnen garapenak erantzunak baino askoz ere galdera gehiago planteatzen ditu une honetan.

3. Egoera eta aurreikuspenak EAEn

3.1. Aurrekariak

Telesforo Aranzadik egin zuen Euskal Herriko etnografiaren eta antropologiaren inguruko ikerketa zientifikoa, eta hari eskatu zioten Etnografiari buruzko ponentzia egiteko Eusko Ikaskuntzaren lehen Kongresuan (1918). Haren ikasle Jose Migel Barandiaranek lan bikaina egin zuen XX. mendean zehar, hiru ildotan: ikerkuntzan diharduten erakundeen bultzatzaile gisa, etnografiako lantaldeen prestatzaile gisa eta ikerketak zabaltzeko argitalpenen zuzendari gisa. Euskal Herriko etnografiaren inguruko beste pertsona garrantzitsu batzuk dira Resurrección Maria de Azkue (herri-jakintzaren eta folkloreak bere bildumetan) eta Aita Donostia (musikologiaren arloan).

Ikerketa sistematikoaren ikuspegitik begiratuta, Barandiaranek Eusko Folklore Elkarte eta izen bereko aldizkaria (1921)

sortzea (Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin eta Aranzadiren aholkularitzarekin), etapa berria izan zen euskal etnografian, bere aurrerapen metodologikoagatik. Ikertzeko beste modu bat sortu zen, hiru helburu nagusirekin:

- Bilketa sistematikoa eta erregistroa, urtero programatutako eta gaika antolatutako landa-inkesten bidez.
- Lortutako datu etnografikoak bildu, artxibatu eta sailkatzea.
- Emaitzak aldizkako argitalpenen bidez zabaltzea.

Hainbat hamarkadatan sustatu eta bultzatu den ikerketa eskerga horretatik (Ander Manterolak monumentaltzat eta errepikaezintzat joa) etorritako emaitzak ezinbesteko ezagutza-iturria dira antropologiarako Europa mailan.

Geroago, erbestean jada, gerra zibilak etendako ikerketei ekin zien berriro ere

Barandiaranek. Aipatzekoak dira Iparraldeko herriei buruz egin zituen monografia etnografikoak, euskal populazio baten azterketa etnografiko osoen arketipotzat hartu direnak, Julio Caro Barojak esan zuen bezala Sarari buruz egindako azterketa zela eta. Aldaketa metodologikoa ekarri zuten, gaikako ikerketetatik herri baten bizitzaren eta kulturaren alderdi guztiak deskribatzen dituzten monografiara pasa baitzen. Garrantzitsua da azpimarratzea Ikuska aldizkarian egindako metodologia-tresnak (gidak, galdetegiak) zabaltzeko lana. Erbestetik itzultzean, berriz ekin zion lanari, eta bizimoduak azkar aldatzearen ondorioz desagertzeko edo sakonki eraldatzeko arriskuan zeuden kulturaren alderdietan jarri zuen arreta.

60ko hamarkadatik aurrera ekin zion atlas etnografikoaren proiektuari, ETNIKER izeneko ikerketa-planeari oinarritua. Lurralde guztietako ikerketa-taldeekin aberastuz joan zen proiektua, arduradun batek koordinatuta

eta lurralde bakoitzeko erakunde akademikoekin edo ikerketa-erakundeekin elkartuta. Landa-lan luzeari eta informazio komuna izateari esker, atlasa egiteko beste urrats bat egitea erabaki zen, lurralde guztietan ikertutako gaietatik abiatuta. Azpimarratzekoak dira lana aurrera eramateko egin zen plangintza-lana eta ezarri zen antolaketa-egitura: eskualde arteko zuzendaritza-batzordea sortu zen, talde bakoitzeko kide batek edo bik osatua, lan komuna antolatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko zena. Era berean, erabaki zen bost eskualde-taldeak sinkronizatzea, inkesta orokorreko gai bati denek batera heltzea eta bost urterako plana ezartzea. Labayru Ikastegiko Etnografia Sailean ezarri zen idazkaritza tekniko.

Euskal Herriko Atlas Etnografikoa

erreferentzia bihurtu da ondorengo belaunaldientzat bere anbizioagatik, sistematikotasunagatik eta ondarearen transmisioagatik.

3.2. Aplikazio-esparrua EAEn

Eskumen-esparrua

Kultura-ondarea da, kultura-sektore guztien artean, administrazio-maila gehien biltzen dituen. Arautuena izan arren, edo agian horregatik, agerian uzten du akordioak negoziatzeko beharra. Izan ere, 2015ean, Espainiako Gobernuak Kultura Ondare Immateriala Babesteko Legea onartu zuenean, negoziazioa izan zen Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, arlo horretako eskumenen inguruan. EAEn, Autonomia Estatutuak jasotzen ditu kulturaren arloan esleitutako eskumenak.

Lege-ikuspegitik jarduera-esparrua konkurrentea izateak esan nahi du administrazioen arteko adostasunaren eta esan gabeko akordioen baitan dagoela eskumenak esleitzea. Izan ere, lege-testuek aipatzen dute beharrezkoa dela elkarlanean aritzea eta erakundeen artean akordioak egitea, bakoitzaren jarduerak zehazteko.

Lehen adierazi dugun bezala, 10/2015 Legea onartu zenean, eta sei hilabeteko negoziazioaren ondoren, akordio bat lortu zen 11., 12. eta 14. artikuluen inguruan, gobernu zentralak errespetatzea zezan Euskadiren eskumen eskusiboa ondasun babestua deklaratzeko bere kultura-ondare immaterialaren parte gisa. Horrela mugatu ziren Espainiako Gobernuak egiten zuen “Kultura Ondare Immaterial Adierazgarriaren deklarazioaren” ahalmena eta irismena; horrek aukera ematen zion edozein euskal adierazpen kultura-ondare immaterial izendatzeko, alde bakarretik eta Eusko Jaurlaritzaren baimenik gabe.

KOla babesteko orduan foru-aldundiek eta udalek dituzten eginkizunei dagokienez, EAeri dagokion arauan zehaztu gabe eta ondare eraikian baino lausoago geratzen dira bere eskumenak, jarraian ikusiko dugun bezala.

Bi lege

Legerian berariaz babestutako ondasun juridikoa da KOla, bai autonomia-mailan, bai

estatu-mailan. Kultura-arloan eskumenak batera gertatzen direnez, honako hauek dira EAEn KOIari eragiten dioten bi legeak:

- **Euskal Kultura Ondarearen Legea** (9/2019 legea) izaera integralekoa, KOIa barne hartzen duena;
- **Kultura Ondare Immateriala babesteko Legea** (10/2015 legea) estatu-mailakoa.

Ondoko taulan laburbildu dira EAEko KOIaren araubide juridikoa ezartzen duten bi lege-arau horietan jasotako kontzeptu nagusiak.

	9/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena	10/2015 Legea, Kultura Ondare Immateriala babesteari buruzkoa
Ikuspegia	Integrala.	Espezifikoa.
Irismena	EAE eta egungo banaketa administratiboa gainditzen duen kolektibitate nazionalaren ibilbide historikoa.	Autonomia-erkidegoetako erregulazioekin bateragarriak diren tratamendu orokorra eta ildo nagusiak (IV. titulua).
KOIaren definizioa	Komunitateek, taldeek eta, zenbait kasutan, norbanakoek beren kultura-ondareztat hartzen dituzten usadioak, irudikapenak, adierazpenak, ezagutzak eta teknikak –haiekin loturiko tresnekin, objektuekin, gailuekin eta kultura-espazioekin batera–. Kultura-ondare immaterial hori belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, eta komunitateek eta taldeek etengabe birsortzen dute, ingurunearen, naturarekiko duten elkarreraginaren eta historiaren arabera, nortasun- eta jarraitutasun-sentimendua emanez eta, hartara, kultura-aniztasuna eta giza sormena errespetatzen lagunduz.	Komunitateek, taldeek eta, zenbait kasutan, norbanakoek beren kultura-ondareztat hartzen dituzten usadioak, irudikapenak, adierazpenak, ezagutzak eta teknikak.
Barne hartutako eremuak	UNESCOren 5 arloak, 11 babes-kategoriatan antolatuta: <ul style="list-style-type: none"> – Tradizioak eta ahozko adierazpenak – Bertsolaritza – Musika – Dantza – Emanaldi tradizionalak eta oroitzapenezkoak 	UNESCOren 5 arloak eta: <ul style="list-style-type: none"> – Gastronomía, sukaldaritzako elaborazioak eta elikadura – Paisaia naturalen aprobetxamendu espezifikoak – Sozializazio kolektiboko moduak eta erakundeak

<p>Barne hartutako eremuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> – Usadio sozialak – Gastronomia – Kirola – Jai-ekitaldiak – Naturarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutzak eta usadioak – Eskulangintzari eta industriari buruzko teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> – Soinu-adierazpenak, musika eta dantza tradizionala
<p>Funtsezko kontzeptuak</p>	<p>Babesa eta transmisioa (III. kap.).</p>	<p>Babesa, Esanahia, Komunitate eramaileak, Dinamismoa, Transmisioa, Jasangarritasuna.</p>
<p>Gobernantzaren ikuspegia</p>	<p>Parte hartzen duten organo orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseilua. – Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko organoa. <p>Kudeaketa-organo espezifikoko bat sortzea 11 kategorietako bakoitzerako.</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, Eudelen, komunitate eramaileen eta onetsiriko erakundeen parte-hartzea.</p> <p>Misioa: lehentasunak identifikatzea eta kultura-ondasun immaterialak babesteko planak egitea, sustatzea eta ebaluatzea.</p>	<p>Berezko izaera parte-hartzailea, aisialdiko eta komunikatiboa, eta banakoen, taldeen eta komunitateen artean elkarreragiteko gaitasuna.</p> <p>Formalki, Babesteko Plan Nazionalaren eta haren jarraipen-batzordearen bidez. Kudeaketa- eta lankidetz-organoa da.</p>
<p>Babes-teknika</p>	<p>Ondasun immaterialen kasuan, babes berezira mugatzen da babes-maila.</p>	<ul style="list-style-type: none"> – Arriskuan dauden ondasun immaterialen zerrenda.
<p>Tresna espezifikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> – EAEko kultura-ondasun immaterialen inbentarioa – Kultura-ondasun immaterialak babesteko planak 	<ul style="list-style-type: none"> – KOIa Babesteko Plan Nazionala – KOIaren inbentario orokorra – KOIaren adierazgarri deklaratzeko.

3.3. Egungo egoera

EAE n KOlaren egoera zertan den jakiteko, lehenik eta behin, aztertu da zein euskal ondasun immaterial dauden UNESCOren zerrendetan. Ondoren, EAEko KOlaren egoeraren prozesu-ibilbidea egin da, hura babesteko eta transmititzeko helburua duten babes-faseei jarraituz: identifikazioa, dokumentazioa hainbat euskarritan, ikerketa, zaintza, biziberritzea, sustapena eta irakaskuntza (6/2019 Legearen 56. artikulua).

UNESCOren kultura-ondare immaterialaren zerrenda adierazgarria

Beheranzko logikari jarraiki, ondasun immaterialak UNESCOren kultura-ondare immaterialaren zerrendan sartzeari dagokionez, une honetan ez dago euskal ondasun immaterialik zerrenda horretan. Hiru ondasun ditu UNESCOren Munduko Ondarearen Zerrendan inskribatuak; aparteko balio unibertsala duten eta gizateriaren ondare komuneak diren ondasunak babesteko sortu zen zerrenda hori:

- Kostaldeko eta Barnealdeko Bideak, “Donejakue Bideen” barruan.
- Bizkaia Zubia.
- Santimamiñe, Ekain eta Altxerri haitzuloak, “Kantauri itsasertzeko Paleolitoko Labar-artearen” barruan.

Ondasunak UNESCOren tresnetan sartzearekin lotutako bi gai hartu behar dira kontuan: alde batetik, harremanak Kultura Ministerioaren bidez izan beharko luke, UNESCOk harremanak baititu estatu kideekin, eta, bestetik, erabaki estrategikoa da zehaztea zer ondasun sar daitekeen edo daitezkeen zerrenda horretan eta nola kudeatu daitekeen hautagaitza (bakarrik edo beste eskualde batzuen parte-hartzearekin).

Estatu osoan 21 elementu daude inskribatuta KOlari dagozkionak, eta lau jardunbide egoki. Ondasuna babestearekin eta zaintzearekin lotutako gaiez gain, zerrendan sartzeak eragin nabarmena du mundu osoan.

Identifikazioa, dokumentazioa eta ikerketa

Atal honen hasieran adierazi den bezala, EAEko KOlaren kudeaketan funtsezko aktiboa da Aranzadik, Barandiaranek, Manterolak, Etniker taldeak eta Labayru Ikastegiak Euskal Herriko etnografiaren inguruan egindako lana. Euskal Herriko Atlas Etnografikoak bezainbesteko zorrotasuna eta anbizioa dituen ikerlan bakar baten aurrekaririk ez dago Europamailan. Ezagutza hori guztia etorkizunean abian jarriko diren KOlaren babes-neurrietan txertatzeko modua aztertu beharko litzateke.


Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren [Kultura Ondarearen Zentroaren](#) webgunean kontsulta daitekeen mapan, kultura-ondasun immaterialen bi bilduma daude: euskal dantzak (hiru lurraldeei dagozkien 449 erregistro) eta inauteriak (Bizkaiari eta Arabari dagozkien 238 erregistro).

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroaren beste neurrietako bat da KOIa **babesteko lanak egiteko dirulaguntzen lerroa**. 2021ean hasi zen 200.000 euroko diru-kopuruarekin (bi urterako), eta KOIari balioa ematen eta hedatzen lagunduko duten proiektuak babestea du helburu.

Foru-aldundien artean, honako programa hauek nabarmendu behar dira:

- Bizkaiko **interes etnografikoko** kultura-ondasunak mantentzeko, ikertzeko eta kontserbatzeko dirulaguntzen lerroa. Gainera, Bilboko Euskal Museoak KOIarekin lotutako bildumak ditu.
- Gipuzkoan, ondare soziokultural materiala eta immateriala babesteko **Kultur Memoriak/Memorias Urbanas** bezalako programak.
- Araban, lurralde osoko **ondare-elementuak dituen GISa** dute. Badira lehen, bigarren eta hirugarren sektoreko industria-ondareari lotutako ondasun materialak, bai eta usadioei eta bizimoduei lotutakoak ere (bola-jokoak, errotak, dolareak, uraskak, elur-

putzuak...). Bestalde, euskal zeramika bildumak eta herri-inauteriei eskainitako atala ditu Lazarraga Kulturuneak.



Laburbilduz, KOIa identifikatzeko, dokumentatzeko eta ezagutzeko informazio-iturriak eta programak daude, nahiz eta informazioa sakabanatua egon eta edukiek garrantzi desberdina izan. Horretarako, lehenengo eginkizun gisa, modu egituratuan eta sistematikoan identifikatu, ordenatu eta osatu behar dira.

Kultura-ondasun immaterialen Inbentarioa eta Babes-planak

Txosten hau egiteko unean, kontraste-prozesuan dago Kultura-ondasun immaterialen EAEko **Inbentarioa** egiteko, egituratzeko eta eskuratzeko dekretua. Testuan nabarmena da KOIaren inguruan

dagoen eskaera soziala, eta 6/2019 Legearen 1. artikulua xedatzen du helburua dela "kultura-ondare immaterialaren babesa, kontserbazioa eta balioa bermatzea, eta pertsona guztiek hura ezagutu, ikertu, zabaldu eta gozatzeko aukera izatea, irisgarritasun unibertsalaren baldintzetan,

betiere baldintzek hala ahalbidetzen badute, bai egungo belaunaldientzat, bai datozen belaunaldientzat”.

Inbentarioa da KOla ezagutzeko eta aintzatesteko aukera ematen duen tresna. Horretarako, beharrezkoa da ondasunak inskribatu aurretik ikertzea, bai eta bizirik dagoen ondare horren bilakaeraren jarraipena egitea ere. Inbentarioa funtsezkoa da babes bereziko ondasun izendatzeko modukoak diren adierazpenak aukeratzeko.


Dekretu-proiektuak honela deskribatzen du komunitate eramaileek ondasunak inskribatzeko prozesuan duten funtzioa: baterako lana da, bi noranzkoko komunikazioarekin, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren eta komunitate eramaileen artean, bai inbentarioan sar daitezkeen adierazpenak identifikatzeko, bai haien aldaketen berri emateko.

Kultura-ondasun immaterialak **babesteko planei** dagokienez, lege horrek honako hau dio hitzez hitz: “ondasun horiek babesteko

estrategiak eta jarduerak biltzen dituzten tresnak dira. Bidezkotzat jotzen diren babes-, sustapen- eta hedapen-neurriak jasoko dituzte, eta kaltetutako komunitate eramaileak dinamizatzen lagunduko dute, alderdi ekonomikoan ez ezik, baita alderdi sozialean eta kulturean ere bereziki”.

Babes bereziko ondasun deklaratzeari

6/2019 Legearen arabera, ondasun immaterialek babes bereziko maila baino ez dute, ondasun higiezinak eta higigarriak ez bezala, haien babes-mailak maila ertaina eta oinarrizkoa barne hartzen baititu. Horrek ondoko sekuentzia honetara mugatzen du deklarazio-prozesua:



2023an argitaratu zen **EHAAn** Bertsolaritza babes bereziko kultura-ondasun immaterial deklaratzeko espeditentari hasiera emateko eta jendurrean jartzeko ebazpena. Babes-figura hori izapidetzen hasi den lehen

kultura-ondasun immateriala da. Gobernu Kontseiluak 2024ko ekainaren 11n onartu zuen deklarazio hori.

Zabaltzea eta balioa ematea

KOIaren inguruko ezagutza zabaltzeko bideetako bat aldizkako argitalpenak dira. Horietan, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dituzten dirulaguntzen bidez sustatutako ikerketak zabaltzen dira. **Kobie** aldizkaria da hedatzeko bide horren adibide bat, KOIa zuzenean joratu ez arren, bai baitu antropologia kulturalari eskainitako saila. **Eusko Folklore** aldizkaria ere, orain Jose Migel Barandiaran Fundazioak argitaratzen duena, euskal etnografia-ikerketen bozgorailu garrantzitsua da. Beste kasu bat da UNESCO Etxeak **Kultura-ondare immaterialari eta garapen jasangarriari** buruzko monografiko batekin egindako argitalpena, non EAEko kasu-azterketak aurkezten dituzten.

Nolanahi ere, hedapen-bide nabarmenena Ondarearen Europako Jardunaldiak dira. 2023ko edizioan KOIari eskaini zitzaizkion, **Ondarea bizirik!-Patrimonio vivo** leloarekin. Urrian zehar egin ziren, UNESCOren Konbentzioaren hogeigarren urteurrena

zela eta, eta ondare hori ezagutarazteko eta balioa emateko programatutako jarduera ugari sartu zituzten. Nabarmentzekoak dira deialdi horren aniztasuna, aberastasuna eta arrakasta, eta, jakina, foru-aldundiek hori zabaltzeko egiten duten lana.

4. Gobernantza-eredu propiorantz

Gobernantzaren inguruko proposamenak aurreratu baino lehen, komeni da ereduaren diseinua baldintzatu dezaketen alderdiak kontuan hartzea.

4.1. Atariko elementuak

Lehenik eta behin, hierarkikoa eta konplexua da administrazio-mailen arteko harreman organikoa. Horrek ez du esan nahi administrazioen artean gobernantzaren adibiderik ez dagoenik, baina eredu ireki eta kolaboratiboaren alde egiteko borondatea eskatzen du.

Bigarrenik, kudeaketa-eremu berria da KOla babestea, eta irizpide tekniko-zientifikoa, epe luzeko lana eta etengabeko ikaskuntza behar ditu. Ez dago arau edo jarraibide zehatzik, orientabide orokorrak baizik, bakoitzak bere egin eta bere errealitatera

egokitzen dituenak. Beste testuinguru batzuekin partekatzen da egoera hori. Hirugarrenik, gobernantza ireki eta partaidetzakoaren aldeko apustu irmoa egiten du Konbentzioak. Egungo politika publikoetan printzipio guztiz logikoa eta eztabaidaezina izanik, KOIaren hedadurak eta zehaztugabetasunak, kasuren batean, eredu konplexua inplikatzeko ezinbestean. Une honetan, lan egiteko modurik zentzudunena eredu sinple bat diseinatzea da, abian jarri behar diren oinarritzko zereginei ekin ahal izateko, eta sofistikatuz joan daiteke zeregin horiek garatu eta zabaldu ahala.

4.2. Dimentsioak


KOIrako planteatu beharreko ereduaren diseinua inspiratu dezaketen bi erreferentzia

hartuko ditugu. Lehenbizikoa da kultura-politikak aztertzeke eredu; bigarrena, kultura-ondarearen gobernantzaren kasu bat.

Kultura-politiken dimentsioak

Ikuspegi analitikoetik, elkarren artean erlazionatzen diren lau dimentsioz osatutako ereduari¹ jarraiki egitura daitezke kultura-politikak.

¹ irudia. Kultura-politiken lau dimentsioetan oinarritutako eredu



¹ Ikus kultura-politiken ereduak, KEB

Dimentsio substantiboa: zer egin nahi den adierazten du. Lehentasunei, estrategiei eta helburuei eragiten die, eta, horrekin batera, baliabideak jartzen dira (pertsonek eta aurrekontuak), politikak islatzeko. Politika sektorialak edo komunitarioak izan daitezke; zeharkakoak eta beste politika publiko batzuei lotuak; balio-katearen maila batean edo gehiagotan eragin dezakete; kulturari berez dagozkionak izan daitezke; edo beste eremu batzuetan kanpo-eraginak bila ditzakete.

Dimentsio etikoa: politikak gidatzen dituzten balio esplizituak edo inplizituak dira. Azken urteotan, gobernantza eta parte-hartzea bezalako printzipioak erabat bereganatu dituzte erakunde publikoek. Gobernantzak eta gardentasunak erakunde heldutasun demokratikoa adierazten dute; parte-hartzea gizarte-ekimena bultzatzearen aldeko apustua da. Gainerako dimentsioetan (substantiboa, instituzionala eta instrumentala) isla izan behar dute. KOlaren kasu zehatzari aplikatuta, gobernantza-ereduan bertan dago inplizituki dimentsio etikoa.

Dimentsio instituzionala: politikari eusten dioten eta politika egiteko modua baldintzatzen duten egiturak dira. Dimentsio horrek eragiten die, halaber, beste erakunde batzuekin (beste sail batzuekin, beste administrazio batzuekin, sektoreekin) lankidetzan aritzeko moduei, beste eragile batzuekin partekatutako erakundeetan parte hartzeari eta erabaki- eta adostasun-egiturei.

Dimentsio instrumentala: helburuak betetzeko eskura dauden tresnak dira. Hainbat gairi eragiten die: legeei eta araudiei, laguntzen eta dirulaguntzen deialdiei, finantzaketa-tresnei, zerga-tresnei...

Ondarearen gobernantzaren dimentsioak: jardunbide egokia

Gobernantzaren ikuspegi espezifikotik, adierazpen immaterialei lotutakoaz gain, bertsolaritzan edo dantza tradizionalan egiaztatzen den bezala, egokia da kultura-ondarearen kudeaketan izandako jardunbide egokien adibideak aipatzea, ondare higiezinari badagozkio ere. Alde horretatik, nabarmentzekoa da **Santa Maria Katedralaren** adibidea, gobernantza sistemikoaren eredu gisa.

Gobernantza-jardunbide egoki gisa identifikatua dago Creadis3 proiektuaren esparruan (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila du buru proiektu horrek), eta gobernantza sistemikoaren ikuspegi berritzailea planteatzen du, honako hauek osatua:

- Gobernantza instituzionala.
- Hiri-gobernantza.
- Gobernantza zientifikoa.
- Gobernantza soziala.

KOlaren berezitasunetara behar bezala egokituta, prozesu honetan ikasitakoak erreferentzia izan daitezke KOlaren gobernantza-ereduaren oinarriak ezartzeko.

4.3. Funtsezko gaiak

EAEko KOIaren kudeaketa integralerako jarduera-esparruak, gobernantza sustatu eta bermatuko duen eredutik abiatuta, honako funtsezko gai hauek hartu behar ditu kontuan:

- **Politika eta lehenetasunak:** lege-esparru orokorraren eta inbentarioak edo ondasun immaterialen deklarazioak egiteko eremu zehatzaren artean bada tarteko eremu bat, gaur egun garatu gabe dagoena, eta honako helburu hauek izan beharko lituzke: jarduteko lehenetasunak ezarri eta planifikatzea, irizpideak ezartzea, epe ertainerako programa diseinatzea, erantzukizunak izendatzea eta hori guztia gauzatu ahal izateko baliabide materialez eta giza baliabideez hornitzea. KOI-rako politika edo plan zuzentzailea behar da EAEn, zerak (helburuak, lehenetasunak, irizpideak) eta nola-k (tresnak, prozedurak eta gobernantza) jasoko dituen.
- **Metodologia:** horixe da, une honetan, lanik premiazkoena, eta politikarekin batera egin beharko litzateke. Egoera sakon

ezagutzen duten espezialistek (teknikariek eta akademikoek) parte hartu beharko dute. Beste testuinguru batzuetan zer egiten ari diren aztertzeaz gain, balioa eman beharko litzaioke etnografiaren eta antropologiaren inguruan azken mendean egindako lan guztiari.

Eremu horretan, honako hauek egin behar dira:

- KOIa identifikatzeko eta baloratzeko irizpideak definitu (informazio-iturriak identifikatu, dagoen dokumentazioaren kalitatea aztertu, ezagutza horren jabetza, etab.).
- Edukia antolatu, lehenetasunak ezarri eta lehendik dauden ikerketa eta jakintza EAEko KOIaren Inbentarioan sartzeko aukerak aztertu.
- Informazioa sistematizatzeko eta inbentarioa elikatzeko protokoloak diseinatu, diseinatzen ari den erregelamendurekin bat etorritz.
- Inbentarioa atari espezifikoko batean jasotzeko aukera pentsatzea, komunitatearen parte-hartzea bideratu

ahal izateko, KOIaren hedapena eta balioa indartzeaz gain.

- **Toki-administrazioen zeregina:** legeak ez du argi definitzen foru-aldundiek eta udalek KOIaren inguruan zer erantzukizun dituzten, ondasun immaterialaren parte diren elementu materialak zabaltzeaz, balioa emateaz eta babesteaz harago. Ondare higiezinekin eta higigarriekin ez bezala, ondare biziari begira lausoagoa da duten zeregina eta ez du behar besteko zehaztasunik.

Ez dirudi oso logikoa denik komunitateari irekitako gobernantza-eredua planteatzea eta tokiko administrazioen ahotsa hirigintza-katalogoak idaztera eta kudeatzera mugatzea, kontuan izanik duen ukiezintasunean, dinamismoan eta komunitate eramailearekiko loturan dagoela KOIaren zentzua. KOIa tokikoa da definizioz, herri-zentzuan, toki baten berezko eta berriazko adierazpen gisa, nahiz eta lurraldean banatutako hainbat tokitan kokaturiko komunitateekin partekatu daitekeen.

Argi dago toki-administrazioek dinamizatzailerik gisa duten zeregina

funtsezkoa dela KOlaren ezagutza eta balorazioa sustatzeko. Aldundiak eta udalak dira kultura komunitarioa lantzen dutenak eta KOlaren egoera eta arriskuak hobekien ezagutzen dituztenak beren jarduera-eremuan. Elkarrekin harremanetan daudenez eta politika soziokulturalak bultzatzen dituztenez, administrazioek funtsezko zeregina izan behar dute haien kudeaketaren eta gobernantzaren prozesuan.

- **Gobernantza:** *bottom-up* partaidetza-prozesuak, zeinaren bihotza komunitate eramaileak baitira, alderdi anitzeko eta maila anitzeko gobernantza-eredua behar du, alderdi interesdun guztien inplikazioa sustatuko duena erabakiak hartzeko prozesuaren etapa guztietan. Alderdi guztiak koordinatu behar dira (administrazioak, erlijio-erakundeak eta erakunde zibilak, akademia, komunitate formalak eta informalak), eta mekanismoak jarri behar dira lankidetzan jardun dezaten eta kudeaketa horretan parte aktiboa har dezaten KOLA babesteko.

4.4. Esparru berrirako alderdi inspiratzaileak

9/2019 Legeak bi organo sortzen ditu Euskal Kultura Ondare osorako: Kontseilua eta Erakunde arteko organoa. Haien funtzioak zehazten dira, baina erregelamendu bidez ezartzen dira haien osaera, antolaketa, funtzionamendua eta funtzio zehatzak. **Kontseiluaren** erregelamendu-dekretua 2021ean argitaratu zen, bai eta **Erakunde arteko organoarena** ere.

Kontseiluak partaidetza-izaera du; Erakunde arteko organoa aholku-emailea da, deliberatzailea eta partaidetzakoa. Biak dira orokorrak, eta ondare guztiez arduratzen dira, ez bakarrik KOlaz.

Gainera, 6/2019 Legeak xedatzen du 11 kudeaketa-organo espezifiko sortuko direla zehaztutako KOlaren kategorია bakoitzerako. Organo horietako bakoitzean parte hartuko dute Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, Eudelek, komunitate eramaileak eta onetsiriko erakundeek. Haien eginkizuna izango da jarduteko lehentasunak

identifikatzea eta babes-planak egitea, sustatzea eta ebaluatzea.

2. irudia. Gobernantza-esparrua, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen arabera.



Nahiz eta, edozein legeriarekin bezala, aplikazioak erregelamendu bidezko berriarazko garapenak behar dituen, 6/2019 Legean jasotako KOlaren egituraketa- eta gobernantza-eredu teorikoak mugak ditu honako hauen inguruan:

- Erabaki estrategikoak organo orokorretan hartzen dira (Kontseilua eta Erakunde arteko organoa). Litekeena da KOIa bazterturik geratzea, gainerako ondareen pisua dela eta.
- Ez da loturarik ikusten kudeaketa-organorokorren eta organo espezifikoaren artean. Tarteko urrats bat beharko litzateke, KOIaren multzoa egituratzeko elementu gisa funtzionatuko duena.
- Kudeaketa-organoespezifikoak gehiegi dira (11 kategoria), eta gobernaezina izan daiteke epe luzera.

KOIaren kudeaketa hasi berria eta konplexua denez, gomendagarria da eredu egituratuagoa, eraginkorragoa eta partaidetza handiagokoa izatea, sektore/gai gutxiagoren inguruan antolatua, eta, bereziki, plan zuzentzaile bat izatea, administrazioen artean adostutako politika (konpromisoak, eskumenak eta baliabideak) eta KOIa babesteko jarduerasparua antolatuko dituen, KOIaren identifikazioa, lehentasunak eta elementu

baliotsuenak eta kalteberenak babesteko neurriak kontuan hartuta, bai eta ondare

hori ezagutzera emateko eta komunitatea inplikatzeko neurriak ere.

3. irudia. KOIaren kudeaketarako eta gobernantzarako jarduera-esparru berria



Jarraian, KOla beste testuinguru batzuetan babestearekin lotutako jardunbide egokiak identifikatuko dira, ideiak eskaini ahal izateko etorkizunean KOla garatzeko EAEn.

Politikari edo plan zuzentzaileari dagokionez, inspirazio-iturri da Flandriako adibidea. 2022. urtearen amaieran argitaratu zen [Safeguarding intangible heritage in Flanders](#) izeneko dokumentua, eta funtsezko kontzeptuen bilduma da. Bertan jasota daude ikuspegi politikoa, rolen definizioa ondarea babestean eta nazioarteko lankidetzaren, KOlaren politikarako gaur egungo erronkak ahaztu gabe.

KOlaren Kontseilu espezifikoen funtzionamendu-formulari dagokionez, interesgarria da [Conseil québécois du patrimoine vivant](#) delakoaren antolamendua, gai horretan parte hartzen duen gobernu-organoa baita.

Tresnei eta gobernantzari dagokienez, partaidetzako inbentarioak dira bi alderdiei erantzuten dien formularik erabiliak. Nabarmentzekoa da, kasu gehienetan, tresna digitalen erabilera KOla biltzeko edo inbentariatzeko, komunitatei zabalik betiere. Tresna hori duten herrialdeen

artean aipatzekoak dira [Herbehereak](#), [Frantzia](#) eta [Finlandia](#).

Azkenik, [Flandriako](#) kasuan, KOlaren partaidetzako plataforma digitala da beste tresna nabarmenetako bat. KOlari buruzko ezagutza guztia web atari bakar batean biltzen duelako nabarmentzen da, ondare horren hedapena, ezagutza eta balioa bultzatuz.

4.5. KOlak beste politika batzuekin duen lotura

KOlaren berezitasunak direla eta (gizartean eta komunitatean oso errotuta dauden adierazpideak, usadioak eta ohiturak hartzen baitituzte barne haren adierazpenek), beharrezkoa da kontuan hartzea zer lotura duten beste esparru batzuekin, bai kultura-politiken barruan, bai zuzenean lotutako beste batzuekin, hala nola kultura-turismoarekin edo zeharkako gaiekin (jasangarritasuna, adibidez), sektoreen arteko loturak ezartzeko aukera ematen baitute.

– KOla ezin da bereizi zenbait elementu higiezinekin eta espazio naturalekin

duen loturatik. Ingurune fisikoarekin lotutako adierazpenak dira, eta, beraz, ondare-politika integratuan sartu behar dira. Are gehiago, ondare-zerbitzuek bermatzen dute, museoek edo artxiboek esaterako, komunitate baten ondare immateriala osatzen duten erabileren, tradizioen eta elementu etnografikoen eta antropologikoen babesa. Bilduma horien zati handi bat zerbitzu publikoetan dago gordeta; beste zati bat, berriz, erakunde pribatuena da. Alderdi horiek guztiak ikuspegi integratutik kontuan hartzea eskatzen du KOlaren kudeaketak.

- Kultura-politikak kokatzen diren esparru orokorrera bideratu behar da hausnarketa. Ikuspegi horretatik, kontuan izan behar da kultura-politika sektorialen xede direla kultura tradizionala, hizkuntza eta ahozko adierazpena, ikuskizunen arteak (musika, dantza, antzeppen tradizionalak), bertsolaritza, jaiak eta artisautza, eta gobernu-maila guztiek eta, bereziki, foru-aldundiek eta udalek sustatzen dituztela politika horiek. Horren harira, garrantzitsua da nabarmentzea sozio-kultura deritzonak jasotzen duen tratamendua,

- asoziazionismoa, praktika amateurak eta oinarrizko kultura bultzatuta. Hala, KOLari estu lotutako alorrak dira hizkuntza-politika, kultura komunitarioa, herrietako jaiak, eta ahalegin handia eskatzen dute udalerrietako kultura-aurrekontuetan. Ezin da KOLaren politikarik sustatu haren parte diren arlo horietako jarduerak kontuan hartu gabe.
- KOLA ezin da ulertu kontuan hartu gabe garapen jasangarria bermatzeko duen gaitasuna bere hiru dimentsiotan (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), Konbentzioan bertan jasotzen den bezala. Uraren eta baliabide naturalen erabilera, tokiko nekazaritza eta abeltzaintza, artzaintza, elikadura-erabilera tradizionalak, herri-arkitektura, osasuna, kosmologia, gizarte- eta komunitate-bizitzarako gaitasunak, bultzatzen dituen ekoizpen- eta kontsumo-ereduak... jasangarritasunarekin duen loturaren adibideetako batzuk baino ez dira horiek guztiak.
 - KOLak zuzeneko lotura du kultura-, gastronomia- eta jai-turismoarekin, eta ondare hori modu jasangarrian babesteko, saihestu edo minimizatu egin behar dira tokiko komunitatearentzat duen garrantzia eta zentzua nahasten dituzten arriskuak. KOLaren ikuspegi holistikoa kontuan hartu behar dira beste arlo batzuk ere, hala nola nekazaritza, lurralde-antolamendua edo hezkuntza, belaunaldiz belaunaldi metatutako ezagutza horren transmisioari begira, bai eta artisautzari edo lanbide tradizionalei laguntzeaz arduratzen den sustapen ekonomikoa ere.
 - Beste gai batzuek ere, ingurune digitalak eta jabetza intelektualak esaterako, zuzeneko lotura dute KOLaren kudeaketarekin eta babesarekin. Ikusi den bezala, tresna digitalak erabiltzen ari dira Partaidetzako Inbentarioetan gobernanta errazteko, eta funtsezkoak dira ondare komun horri balioa emateko. Bestalde, ondare-adierazpen immaterialen egiletza kolektiboa da, definizioz. Alde horretatik, komunitatetik kanpoko eragileek bidegabe jabetzeko edo erabilera desegokiak egiteko arriskua dago, KOLaren legeria espezifikoko batzuek jasotzen duten bezala.
 - Azkenik, txostenean azaldu den bezala, emakumeek garrantzi handia dute KOLA babesteko eta transmititzeko orduan. Lanbide tradizionalak, eguneroko bizitza, gastronomia, erlijio-ohiturak eta -usadioak, eta abar, ezin dira ulertu emakumeek ondare hori bizirik mantentzeko duten zeregina aitortu gabe, nahiz eta ikusezin bihurtu diren. Horregatik, maila guztietan sustatzen diren berdintasun-politikez gain, ondare komun horren protagonista nagusi izan beharko lukete emakumeek.

5. Azken gogoetak

Euskadiko Kultura Ondarearen 6/2019 Legea onartu zenean, KOla modu esplizituan sartu zen ondare-politikak arautzen dituzten arauetan. Pandemia etorri izanak eta beste ondareen arau-garapenei lehentasuna eman izanak lagundu dute, dudarik gabe, euskal KOlaren babesa bermatuko duten tresnak atzeratzen. Orain, gogoeta egiteko, antolatze eta KOla kudeatzeko esparru egituratua adosteko garaia da, euskal administrazio guztiekin, erakunde akademiko eta erlijiosoekin, eta komunitate eramaileekin, KOlaren kontzeptuaren beraren ardatz baitira.

Administrazioetako talde kudeatzaileetan, duela hamarkada batzuetatik ikerkuntzan dihardutenetan, eta komunitate eramaileetan ere belaunaldien arteko erreleboa gertatzen ari den une honetan, handia da KOla babesteko funtsezko ezagutza-emari hori identifikatzeko, ordenatzeko eta balioesteko beharra.

Potentzialki zabala eta anitza da KOla, aberatsa eta kudeatzen zaila, hain zuzen ere, bizia eta dinamikoa delako eta eragile eta administrazio ugari biltzen dituelako. Haren araudia garatzeko, beharrezkoa da KOlaren politika izatea, arlo horretako programak eta ahaleginak antolatu, egituratu, lehenetsi eta bateratuko dituen, betiere gobernantzaren ikuspegitik.

Komunitateak arreta berezia jartzen du KOlan, ia pertsona guztiei eragiten baitie, modu batean edo bestean. Hori dela eta, beharrezkoa da lan egitea ondare hori ezagutarazteko eta komunitateak senti dezan zerbait garrantzitsua dela, bere eguneroko bizitzaren parte delako, hain zuzen ere. KOlak aukera ematen du oinarriko kultura bizia nabarmentzeko, ikuspegi zientifikotik eta mundu osoan aitortua, praktika komunitarioarekin batera. Kultura-adierazpen gutxik uztartzen dituzte alderdi horiek guztiak hain zeharka. Esparru

horrek ahotsa eta ikusgarritasuna ematen dizkio batzen gaituenari, herri gisa eratzen eta ezaugarritzen gaituenari.

KOlaren hedapena eta balioa nabarmentzea da ondare horren kudeaketaren alderdietako bat; izan ere, berau ezagutzearen eta aintzat hartzearen baitan dago ondare komun hori transmititzen jarraitzea, eta, legeak dioen bezala, euskal nortasuna modu dinamikoan taxutzea.

6. Erreferentzia bibliografikoak

Comisión Europea Secretariat General (2001). La gobernanza europea - Un libro blanco. Hemen eskuragarri:

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex:52001DC0428>

Department of Public Affairs - UNDP (1997). *Reconceptualising Governance*. Hemen eskuragarri:

https://www.researchgate.net/publication/265292783_Reconceptualising_Governance

European Commission, Directorate-General for Education, Youth, Sport and Culture, (2018). *Participatory governance of cultural heritage: report of the OMC (Open Method of Coordination) working group of Member States' experts*. Hemen eskuragarri:

<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/b8837a15-437c-11e8-a9f4-01aa75ed71a1/language-en>

Eusko Ikaskuntza-Barandiaran Fundazioa/Labayru/Manterola, A. (2007-2008). *Curso online de Etnografía Vasca*.

Labayru Fundazioa (2019). *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa (edizio digitala)*. Hemen eskuragarri:

https://atlasetnografico.labayru.eus/index.php/Presentacion_Alimentacion_domestica_en_vasconia

Labrit Multimedia (2016). *Plan Director del Inventario del Patrimonio Cultural Inmaterial de la Comunidad Foral de Navarra*. Hemen eskuragarri:

<https://www.navarra.es/documents/20361361/20361383/Plan+Director+del+Inventario+del+PCI+de+CF+Navarra.pdf>

Kultura Ministerioa (2015). *Plan Nacional de Salvaguarda del Patrimonio Cultural Inmaterial*. Hemen eskuragarri:

<https://www.cultura.gob.es/planes-nacionales/planes-nacionales/salvaguardia-patrimonio-cultural-inmaterial.html>

UNESCO (1982). Conferencia mundial sobre las Políticas Culturales MONDIACULT. Informe final. Hemen eskuragarri:

https://derechodelacultura.org/wp-content/uploads/2015/02/d_inf_mundiacult_1982.pdf

UNESCO (2022). *Repensar las políticas para la creatividad*. Hemen eskuragarri:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000380479>

UNESCO (2022) *Textos fundamentales de la Convención para la Salvaguarda del Patrimonio Cultural Inmaterial*. Disponible en:

https://ich.unesco.org/doc/src/2003_Convention_Basic_Texts-2022_version-ES.pdf

UNESCO (2015). *Patrimonio Cultural Inmaterial y desarrollo sostenible*. Hemen eskuragarri:

https://ich.unesco.org/doc/src/34299-ES.pdf?TSPD_101_R0=080713870fab20003ece7e3c11ac20d79f6cfef7ec1cd4cf5a10ce136cb293bf8d079395cb3e7b5308831f8a331430007ad6d8053d1abb14dd6c129d7ccf40ab53be77d05b2606d29e93a6c3e0009838eead1bc0afe000446646a148f290fcd8

UN etxea (2023) *Kultura-ondare immateriala eta garapen jasangarria. Euskal Herriko ondare bizia*. Hemen eskuragarri:

<https://unetxea.org/portfolio-item/patrimonio-cultural-inmaterial-y-desarrollo-sostenible-patrimonio-vivo-en-el-pais-vasco/>



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Gobernantza eta kultura ondare immateriala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

